


Sarean, etxean bezala

BADA FORMULA ON-ON BAT INFORMAZIO PERTSONALA ARRISKUAN JARRI GABE INTERNETEN IBILTZEKO: ZENTZU PIXKA BATEKIN JOKATZEA



Nork emango lioke kontu korrontearen kodea kalean beste gabe hurbildu zaion bati? Edo zeinek emango lioke telefono zenbakia inondik ezagutzen ez duen norbaiti? Eta nork erakutsiko lioke familiako argazkia ezagutu berri duen bati? Inork ez, segur aski. Zentzu pixka bat daukanak badaki zer erakuts diezaiokeen zeini, eta badaki, txikitatik hala erakutsi digutelako, gauza batzuk ez direla nolana ere erabiltzekoak. Bada, jakabide horrek Interneterako ere balio du. Gaur egun, Interneten aurki daitezkeen zerbitzu gehienek, batera egokiak eta kalitatezkoak badira, behintzat, aukera ematen diote era-

biltzaileari nahi dituen datuek soilik erakusteko eta hark nahi dituenentzat soilik. Mugak norberak jartzen dituen arren, bada zaindu beharreko beste alderdi bat ere: zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresek gordetzen dituzte datu guzti-guztiak, eta ongi jakin behar da bakoitzak zer politika erabiltzen duen pribatutasuna zaintzeko.

Aro digitalaren ajeak

Gizarte digitala bi talde handitan banatzen dela esan liteke. Aro digitalaren kumeak egongo lirakeke batetik, duela hogeitau urte baino gutxiago jaio diren neska-mutilak, ordenagailuak eta Sarea ohiko tresna izan dituzten belaunaldiak. Beste talde handian, berriz, gainerako guztiak egongo lirakeke, Historiaurreko gizakiak. Termino horrek ez du esan nahi horiei guztiz arrotz eta ezezagun zaizkienik teknologia berriak; horrekin adierazi nahi dugu Internet gauza berria dela horientzat, eta oraindik ez dituztela bereganatu ohitura eta jokabide guztiz egokiak.

Sarean dabilzan erabiltzaileak gehienek ez dakite oso ongi nola erabili behar dituzten Interneteko zerbitzuak euren informazio pribatuaren jabe izaten jarraitzeko, eta ez dakite halaber zer ondorio ekar ditzaketen euren ekintzek. Hori oso nabarmen ikusten da, adibidez, gizarte sareetan: jendeak lagun eta familiakoen argazkiak jartzen ditu haiei baimenik eskatu gabe, edo datu pertsonalak zabaltzen ditu ongi zehaztu gabe zeini iritsi behar zaizkion eta zeinek ez dituen ikusi behar.

Gero damurik ez izateko, zuhur eta zentzuz jokatu beharra dago. Aldiro erabaki

egokia hartzen ari garela ziurtatzeko, honako galdera hauxe egin behar genioke geure buruari: nola jokatu nuke saretik kanpo? Alegia, Flickr zerbitzuan jarri nahi ditudan argazki horiek erakutsiko ote nizkioket nor-nahiri? Zentzuzkoa ote litzateke jende multzo bati etxeko helbidea edo posta helbidea ematea? Ohiko egoeretan egingo genukeela iruditzen bazaigu, berez ez luke oztoporik egon behar Interneten ere egiteko.

Intimitate digitala mugatu

Inor ez da irteten kalera guztiz biluzik, ezta arropatan guztiz bilduta ere, begiak ere ageri ez dituela. Interneten ere erabaki beharra dago zein informazio pribatu erakutsi eta zein ez, eta, segur aski, erdibideko erabakia hartzea izango da egokiena. Zorionez, sareak eskaintzen dituen zerbitzu kalitatezko gehienek eta gizarte sareek aukera uzten dute erabakitzeko zenbateko pribatutasuna eman nahi dion norberak informazio bakoitzari. Flickr, Youtube eta antzeko beste plataforma batzuetan –argazkiak eta bideoak argitaratzeko balio dute bi horiek– erabiltzaileak mugatu dezake nork ikusi ahal izango duen informazioa: jende guztiak, norberak soilik edo norberak gonbidatzen dituen pertsona jakin batzuek. Erabiltzaileak mugarik jartzen ez badie, zerbitzu horiek, berez, mundu guztiak ikusteko moduan argitaratzen dute informazioa. Beraz, ongi pentsatu beharra dago ezer argitaratu aurretik, eta erabakirik egokiena hartu ondoren, pribatutasun-aukerak konfiguratzeko komeni da.

Gizarte sareerik konplexuenek, Facebook edo Tuenti izenekoez, adibidez, pribatutasun

aukera ugari eskaintzen dituzte. Zifra sistemak erabiltzen dituzte informazioa bidali eta gordetzeko, eta horri esker, gonbidapena jaso duten pertsonak soilik ikusi ahal izaten dute informazioa. Sistemak ongi ezagutzea komeni da, eta horrela lor liteke ongi konfiguratzeko nork zer ikus dezakeen; gerta daitezke, izan ere, erabiltzailearentzat garrantzi gutxi duen informazioa oso garrantzitsua izatea haren inguruko norbaitentzat.

Demagun festa batean argazkiak atera ditugula eta gizarte sare batean argitaratu ditugula. Guretzat, agian, irri egiteko modu bat baino ez da izango, argazkiek ez dutelako ustez ezer desegokirik erakusten, baina beste norbaiti mingarri gerta dakioket bere burua argazki jakin batzuetan agertzea. Halakorik ez gertatzeko, beti baimena eskatzea da jokabiderik zuzena.

Sareko eztabaidaguneetan ere tentuz eman behar da iritzia. Internet aplikatzaile ahalsua da oso, eta ez da komeni zerna-ri esatea, guztia grabatuta geratzen baita, eta bilatzaileen eskura. Oso adierazgarria da, adibidez, informatikari bati gertatua: enpresako zuzendariaren bizkarretik irri eta irain eginez jardun zuen Twitter-en, eta nork irakurriko eta zuzendariaren emazteak. Hantxe bukatu zitzaizkion lanak...

Pribatutasuna eta intimitatea: negoziatu daitezke?

Pribatutasunak alderdi bat baino gehiago biltzen ditu Interneten. Batetik, zenbait datu isilpean eta seguru gordetzea esan nahi du: bankuko kodeak, mediku historia, posta elektronikoen pasahitza... erabiltzaileak soilik ezagutzeko dira. Bestetik, berriz, inter-

nautaren intimitateari lotuta dauden edukiak ere hartzen ditu aintzat: haren bizitza pribatuari buruzko informazioak, artxiboak eta datuak. Horiek besteei erakutsi edo ez, erabiltzaileak berak erabakitzen du. Pribatutasuna, beraz, funtsezko balioa da Sarean, ezin utzizkoa, baina baditu negoziatu daitezkeen zenbait alderdi, azken batean erabiltzaile bakoitzak finkatzen duelako zer gorde eta zer erakutsi nahi duen.

Plataforma askok negozioa egiten dute erabiltzailearen datu pertsonalekin, eta, aldi berean, zerbitzu hobe emateko erabiltzen dituzte datu horiek. Hori gertatzen da, esaterako, Facebook zerbitzuarekin eta, oro har, Google-ri lotutako guztiekin. Internautaren informazio pertsonala gordetzen dute eta haren intereseko izan daitezkeen gaiak buruzko publizitatea helarazten diote; baina, ordainetan edo, aukera ematen diote aspaldi-aspaldiko mezu elektronikoak eskuratzeko eta txat elkarrizketak ere bai. Eta berdin gertatzen da ustez galduek zeuden irudi, abesti edo bideoekin ere.

Zerbitzu hori jaso nahi duenak, eta edozein lekutatik beti eskura eduki nahi duenak, disko gogorra ahaztuta edo ordenagailua beti aldean eramaten ibili beharrik gabe... hori guztia nahi duenak, ezinbestean, zerbitzu hori ematen duten enpresen esku jarri behar dituzte datu pertsonalak, eta, beraz, uko egin beharko dio pribatutasun erabatekoari. Normalean, enpresa horiek egoki erabiltzen dituzte datuak, baina badaezpada ere, beti komeni izaten da ongi irakurtzea zer baldintza jartzen dituen zerbitzu bakoitzak, jakiteko ea legea errespetatzen duen horien pribatutasun-politikak. //